

# KULTURA-POLITIKA ARLOAK ANTOLATUTAKO JARDUERETARA EDO PRESTAKUNTZA-SAIOETARA JOATEKO PREZIO PUBLIKOAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA FISKALA

## I. XEDAPEN OROKORRAK

**1. artikulua.-** Udal honek, Bizkaiko Lurralde Historikoko toki-ogasunak arautzen dituen Foru Arauan aurreikusita dagoenarekin bat etorritik, ordenantza honen eranskinean ageri diren zerbitzuak eskaini eta jarduerak egiteagatik kobratu beharreko tasak ezarri eta eskatzen ditu, ordenantza honetan ezarritako baldintzetan. Tasa horiek ordenantza honen parte dira.

**2. artikulua.-** Ordenantza udal-mugarte osoan aplikatuko da, Kultura Politika eta Euskara Arloak antolatutako prestakuntza-jarduerak direla eta.

## II. ZERGA-EGITATEA

**3. artikulua.-** Udalaren Kultura Politika Arloak zerbitzua ematea edo jarduerak egitea da zerga-egitate, eta izena ematen edo matrikula formalizatzen den unean bertan sortzen da ordainitzeko betebeharra.

## III. SUBJEKTU PASIBOA

**4. artikulua.-** Kultura Politika Arloak emandako zerbitzuen edo egindako jardueren onuradunak dira subjektu pasiboak dira, edo prezio publikoa ordaintzea eskatzen duten ekitaldiantolatuetara joaten direnak.

## IV. ZENBATEKOA

**5. artikulua.-** Eskatutako edo egindako zerbitzu edo jarduera bakoitzeko ordainduko dira eska daitezkeen zenbatekoak. Udal-zerbitzuak emateko edo udal-jarduerak egiteko, aldeztu aurretik eskatu behar da zerbitzu edo jarduera horiek egitea, eta honekin batera doan eranskinean zehaztutakoa izango da haien zenbatekoa.

**6. artikulua.-** Egiten den jardueragatik edo zerbitzuagatik ordainduko da prezio publikoa, honela:

- Kultura Politika Arloak zerbitzua eman edo jarduera egin aurretik zehazten duen kontu korrontean diru-sarrera eginda.
- Onuradunen kontu korrontean kargua eginda.
- Kultura Politika Arloak zehazten duen kontu korrontera banku-transferentzia egin da.
- Online ordainketa eginda.

**7. artikulua.-** Zerbitzu edo jarduera horiek egiteko, nahitaezkoa da ezarritako prezio publikoak ordaintzea, eta ordainketarik egiten ez bada, ez da dagokion zerbitzurik emango edo jarduerarik egingo. Hala ere, prezio publikoa ordaindu behar duenari egotzi ezin zaizkion arazoiengatik, zerbitzua edo jarduera ematen edo egiten ez bada, dagokion zenbatekoa itzuliko zaio.

**8. artikulua.-** Prezio publikoak ez ordaintzeagatiko zorrak premiamendu-prozeduraren bidez eskatu ahal izango dira.

## V. HOBARIAK

**9. artikulua.-** Gazteria Sailak antolatutako prestakuntza-ekintzetan, hobari hauek aplikatuko dira:

%20ko hobaria aplikatuko zaie Gazte Txartela edo hitzartutako beste txartel batzuk dituztela egiaztatzen duten erabiltzaileei, eta %40koa, Udalaren Gazteria Sailaren bazkide-txartela dutenei.

**10. artikulua.-** Unibertsitateko kultur aisialdiko programarako Kultura Sailak honako hobari hauek aplikatuko ditu:

Basaurin errolatuak: 40,00 euro

**11. artikulua.-** Adingabeentzako beste ikastaro edo aisialdi-jarduera batzuetarako honako hobari hauek ezarri ahal izango dira:

	HOBARI-EHUNEKOA (%)
2. Seme-alaba	% 20ra arte
3. Seme-alaba	% 30era arte
4. Seme-alaba eta ostekoak	% 50era arte
Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta edo Bizitzeko Gutxieneko Diru-sarrera jasotzen dutenak (edo izapidetzen ari direnak)	% 70era arte
AESak edo ANPMak jasotzen dituztenak (edo izapidetzen ari direnak)	% 80ra arte

## ERANSKINA PREZIO PUBLIKOEN ZENBATEKOAK

JARDUERA	PREZIOA (€)	
Musika-prestakuntzako ikastaroa	144,00 euro	
Robotika ikastaroa, STEAM campusa eta antzekoak	41,00 euro	
Uda Gazte eta Gabon Gazte jarduerak	26,00 euro	
Unibertsitateko kultura-aisialdia	BASAURIN ERROLDATUAK	41,00 euro
	GAINERAKO ERABILTZAILEAK	57,00 euro
Aisialdiko beste ikastaro eta jarduera batzuk	GUTXIENeko PREZIOA	21,00 euro
	GEHIENeko PREZIOA	309,00 euro

### **XEDAPEN INDARGABETZAILEA**

Erabaki hau indarrean sartzen denean, indargabetuta geratuko da Kultura Politika Arloak antolatutako prestakuntza-ekintzetan edo jardueretan parte hartzeagatik ordaindu beharreko prezio publikoa aplikatzea eta arautzea erabakitzen duen beste edozein.

### **AZKEN XEDAPENA**

Erabaki hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean. Aurrekoa Ogasun Batzordeari aurkeztuko zaio, azter dezan, eta ondoren, Udalbatzari aurkeztuko zaio.